

EUSKARA GAURKOTZEKO ZENBAIT AHALEGIN (*)

Donostia, 1984-I-27

Ricardo Badiola Uriarte

Duela bederatzi urte hasia naiz Euskaltzaindian lanean eta, urte hauetan gorabehera anitz izan ditugu gure inguruan eta, nola ez, itzulpen eremuan. Orain arte buruturiko itzulpen lanez, hogeit bat karpeta haundi dauzkagu. Askotan, hanka sartze haundiak egin izanen ditugu, baina nora jo ere ez genekien, batez ere hasierako aldian.

Orain arte buruturiko itzulpenetan oinarriturik, sarrera gisara aurkezpe-na egin dugu Euskal Herrian itzultzailearen zailtasunak eta beste zenbait arazo ikuturik.

Hemen ez ditugu aipatuko, gure kasuan, burutu lan mota guztiak ez eta aurkitu ditugun zailtasunen zerrenda osorik ere; baina bai zenbait arazo eranskin erara.

Lehendabizi, eskerrak emon beharrean aurkitzen naiz euskarazko nire irakasle eta maisu izan zen Imanol Berriatua zenduari, berau izan baitzen nire irakasle zuzpertzaille eta euskal alorreko gidaria.

Bestalde, eskerrak baita nire Bilboko bulegoetako lankideei ere, hain zuzen, hauengana jo baitut une larrietan. Berauei esker burutu baititut aipaturiko itzulpenok. Hau dela eta, eskerrak Jose Antonio Arana Martija jaunari, beronengana jo baitut lege-arazo, bibliografia eta beste zenbait kasutan; Jose Luis Lizundia jaunari, toponimia, izendegi eta administral alorrean; Juanjo Zearreta eta Xabier Gereño jaunei, finantza eta administral eremuan; Rosa M.^a Arza andereari, liburu eta bibliografian; Nere Altuna andereari, enprestatoko hitzarmenetan zalantzak eta zehaztasunen beharrianetan; Resu Orbe, Bego Amundarain eta Lutxi Alberdi andereei, askotan berauengana jo beharra baitaukat Euskaltzaindira datozen itzulpen eskaleen nahiak zeintzu diren jakiteko, makinatze lanetarako eta baita kontsulta sailean zenbait argitasun jaso ahal izateko. Berriz ere, eskerrak guztioi eta aipatu barik uzten ditudan kide eta ezagunei urte hauetan eta orain ere elkar laguntzeagatik, hain zuzen,

(*) Txosten hau, Gasteizen, 1983-IV-28an, Euskaltzain urgazle izendatzearen erantzuna da.

udal itzultzaileei, Diputazioetakoei, zenbait institututan euskara irakasten dihardutenei, etab, etab.

ITZULTZAILEAREN PRESTAKIZUNA

Itzultzaileak sortu egin behar du eta ez kopiatu. Itzulpen batetan jatorrizko testuaren mamina edo funtsa zeharo jaso behar da eta ez komentario edo honelako zerbaitetan aritu.

Itzulpen eremuan sartzea nahi duen batek hizkuntza -gure kasuan euskara- trebeki menderatu behar du, eta hemendik aparte unibertitate mailako jakitun jabe izan; ezta nahiko titulu bat izatea, baizik eta kultur maila bikaina edukitzea ere beharrezkotzat joten dugu. Euskal itzultzaile trinko batek, Euskaltzaindiko B maila eduki beharko luke, edo honen mailarako eskatzen denaz jabetua, gutxi gora-behera.

Itzultzaile batek hitzen jatorria eta konposaketa eremua ezagutu behar ditu, bestalde, hiztegi enziklopedikoek ere ez diote inolako kalterik sortuko; baita gaureguneko itzulpen saileko oinarrizko ezagupenak, jokaerak, etab, etab, ere.

ITZULTZAILEAREN ARAZO ETA LARRITASUNAK

Itzultzailea pertsona madarikatua da. Batek baino gehiagok galdetu ere egiten du ea posible den itzulpenik egitea: hizkuntza batetan emana, bere mundua duelarik, pentsamolde, hitz, bizitza eta gainerakoa, ea bene-benetan ahal den beste hizkuntza batetan ematea.

Alde batetik, galdea hori aidean utzirik —eta agian, ibiltea ibiliz erakusten delako—, beste zenbait punturi heldu behar genioke.

Gaurko hizlariak mundu berezi bat aurkezten digute, eta idazleak beste mundu bat eman behar du. Benetan, egiten dena, esaten dena, pentsatzen dena edo somatzen dena; dena hitz batetan, hitzetan irauli eta hertsu behar du. Eztu beste biderik, ez bada lerro bakoitzean marrazki bat egin eta horrela gauzak azaltzen saiatzea. Baina orduan ez dizute esango idazle zarenik: komikigilea edo agian artista modernista edo horrelako zerbait, esango dizute. Baina ez sekula idazlea.

* * *

Gizarteak eta gainerako tradizioak hiztegia eta gramatika jarri ditu. Ez diote besterik eman, luma kamustua ezik, eta hura ere gaizki erabil baleza, gainetik datorkion kritika zorrotza. Beraz, idazlea ere gizajo bat da, besterik ezinean.

Eta itzultzailea?

Itzultzailea, idazlearen prozesioan, kandela eramailea —eramaile giza-joa— dugu. Batez ere Euskal Herri mailan —hemen denok baikara sasi linguistikak edo antzerako zerbait. Hemen, itzultzaileak udaletan, bankuetan, merkatalgoan... muturrean eta astirik gabe jarten diotena, itzuli eta bota behar du, nola edo hala, txarto, zuzen, oker, gramatikari jarraituz, ala ahal duen moduan edo eran. Baina, ematen dioten guztia, ahal duen tokitik pasa, eta ahalik ulertzeko erarik errazenean eta ulerkorrenean eman behar du, berekasa; eta batzutan, euskalki batetara moldaturik.

* * *

Zer da, beraz, itzultzailea? Zer egin behar du, bizi nahi badu, azterketak igaro nahi baditu, eta beraren ekinaren balioa aintzat eta kontutan hartzea nahi baldin bada?

Hizkuntza guztietan, batez ere, lehendabiziko kultur urrats eta goi mailara jaso nahi izan denean, idazleak itzultzen saiatu dira. Beste norbaitek sorturikoa hartu dute, eta gero literatur jator baten jatorria zabaldu. Euskal Herrian be, bada horrelakorik. Baina gauzak okertu direnez gero, gaur berriro aurkitzen gara hiztegia sendoturik, agian gainerakoak —literatura, hizkuntza mintzatua... hainbeste garrantzirik ez zuela adieraziz. Gramatikatik aparte dena dugu murrizturik, argalduta eta galdua.

* * *

Eta mitoak mito direnez eta ez gehiago, euskararen mitoa ere alde batera utzi behar genuke. Hau da: euskara hizkuntza arrunta, normala... munduan dabilzaneko beste askoren antzeko eta pareko hizkuntza da, eta fetixismoa baztertu behar genuke oraindik gehiago edo areago: “euskara maite dut”, batek baino gehiagok dioena da: “euskaraz maite baleza hobe litzateke”. Euskara ez tut uste beste munduko gauza denik, maitatu ahal izateko.

Hizkuntza oro komunikabide da. Tresna bat, besterik ez. Tresna horren maitasun gairik badenik, ez tu inork ezeztatzen, eta baita mundu oso bat eskutatzen dela hitzen ostean: hori ere ez. Hitzetan sentimenduak, eritziak, balioak eta mundu ikuspegi osoa barnetzen zaigu. Baina hitzak eta hiztegiak maitatzea, hori ez dakit ez ote dugun euskaldunok oso geure-geurea. Maitasun honi buruzkoa edozein delarik ere, hizkuntza erabili behar den tresna da, gure nahiak, pentsakerak, ikusmoldeak adierazteko balio duena, eta horrela hartu behar genuke, gainerako teorizaketa guztiak alde batetara utzirik.

Gaur gaurkoz, gure tresna hau nahiko edo aski herdoildua eta uhertua daukagu, kamustua be bai, inoiz zorrotza izan bada ere. Eta, itzultzaileak tresna hori hartu behar du eskuetan, mila posibilitatez beterik, beste edozein hizkuntza bezala, baina oraindik bat ere harrotu gabekoa. Oraindik gutxiago itzultzailearentzat.

GAURKO ITZULPEN JOERAK

Aintzinako itzulpenetan mezuaren forma azpimarratzen zen gehienbat eta zehetasun estilistiko guztiak ematen ahalegintzen ziren, alegia, *hitz jokoak, errima, erritmo, paralelismoak* etab. ...

Gaurregun, aldiz, jaramon handiagoa egiten zaio mezu-hartzailearen erantzunari; itzulpenaren jasotzailearen erantzuna eta jatorrizko testuaren hartzailearena, alderatu behar dira. Honetaz, begira zer dioen Xabier Mendigurenek bere: *Itzulpen teoriatzko ezagupenak* (1), 48 eta 49 orrialdeetan: "Itzulpen bat *zuzena* (*) ote den erantzuteko, *norentzat* den jakin behar da aurrena. Itzulpen horren erdi-mailako irakurleak zenbaterainoko egokitasunarekin ulertuko lukeen jakin eta gero finka dezakegu itzulpen horren zuzentasuna edo egokitasuna (correctness). Beraz, jendeak seguraski gaizki ulertuko dituen esamoldeak eta astunak eta zailak direlako mezua jasotzetik irakurlea saihesteraziko luketenak alde batera utzi behar dira.

Irakurleagoaren portzentaia handi batek oker ulertzen duen itzulpena ezin daiteke egokitzat eman.

Bestalde, badirudi gaurregun nahikoa hedaturik dagoela hizkuntza bakoitzak bere *izaera* edo *nortasun berezia* duelako iritzia eta behar bezala komunikatu beharra dagoela. Eta itzulpena "ezinezkoa" dela aldarrikatu dutenen aurka, gaur gehienek onartzen dute, hizkuntza batean esandako edozer esan daitekeela bestean, baldin eta forma funtsezko osagai ez badu mezuak.

Eta, azkenik, leialtasunari buruz izan diren iritzi desberdinak gorabehera, gaur nahiko argi ikusten da, mezuaren edukina nahi baldin bada zenbaitean derriorezkoa dela forma aldatzea".

Bestalde "nolabait esateko —dio Xabierrak(2)—, gaurregun ez da posible Leizarraga eta Orixeren erara itzultzea, nola hizkuntza hala mezu hartzailea, biak aldatuz bait doaz. Harako *traduttore, traditore* hura neurri batean egia delarik, itzultzaileak adi egon behar du bihurtzen ari den testura, iruzur egiteko arriskuaren beldurrez, baina, bestela, egitura linguistikoen komunikaezinezko tesia, egiazki komunikagaitasuna baizik ez dela ere ez du ahantzi behar".

GRAMATIKA EREMUA ETA PRAKTIKA

Hainbat arazo barnetzen da izenburu zaku honetan. Guk ere sartu beharko ditugu zenbaitzu.

(*) Azpimarratzea nirea da.

(1) Xabier Mendiguren: *Itzulpen teoriatzko ezagupenak*, Lazkao (Gipuzkoa) 1983.

(2) Ibidem, 70. orr.

Euskararen gramatika, batez ere azken bolada honetan, ahozko euskararen gainean egina daukagu, idatzi eta hitz egitea edo egina bat bezala jo dira, alde guztietan, nahiz eta aspaldidanik bereziak izan gure artean; hizkuntzaren eredu bezala, ahozkoa hartu dugu, ahantzirik beste euskara bat ere badugula, alegia, idatzia. Eta gramatika egiterakoan, sarri, bigarren hizkuntza —idatzia— ahaztu, baztertu eta mesprexatzen da. Baina, itzultzailea, liburu, orrialde, fitxa, komunikazio itzultzaile denez, ezta ahozko hizketa baten itzultzaile —salbu itzulpen zuzen edo aldi bereko edo simultaneo— nahiz eta irakurria, batzutan, entzutekoa ere izan, irakurterakoan baizik.

Idatzia alde guztietan hitzegina baino gatxagoa edo zailagoa da, esaldi edo perpausak, agian, beteagoak direlako, elipsiari leku gutxiago uzten zaio-lako, esaldiak osotu egin behar direlako. Ahozkoan hainbat arazo alde bate-tara baztertzen dira, esaldiak laburtzen direlako, eskuak be, hizlari bihurtzen direlako, hitzen soinuen laguntzaile keinuak ere daudelako, etab.

Baina idaztean, hiztegia eta gramatika geratzen dira. Eta haiekiko burruka ezta gehienetan gozoa izaten.

* * *

Itzultzailegai guztiok nabari dugu itzultzearen zailtasuna, gure hizkuntzaren eta inguruko en egitura eta sintaxia ezberdinak baitira. Frantsesetik gaztelaniara itzultzeko eragozpenak eta zailtasunak izan ohi badira, gaztelan-iatik euskarakoetan zailtasunak ugariago eta nabarmenagoak dira. Eta zen-bait gramatikak, euskara eta gaztelaniaren arteko aldea oraindik areagotu egin nahi duenak, ez gaitu asko lagunduko gertatzen zaigunari irtenbiderik bilatzeko eta aurkitzeko.

Kontutan hartu behar duguna, agian, norbaitek zerbait adierazi edo esan nahi duela, eta esaten duena ahalik eta garbien esan behar duela, besteak ahalik eta errazen ulert dezan. Hori da garrantzitsuena eta gainerakoa, tres-naz baliatzea, ondo ala txarto, baina komunikabideaz baliatzea da. Zalantzari-k gabe, gramatika hizkuntza baten mugen eta posibilitateen adierazlea dugu. Mugak jarten ditu, tradizio baten berri ematen duelako, eta zer den zilegi eta zer ez, aditzera ematen duelako. Eta posibilitateak ere agertzen diz-kigu, bertan aurkitzen baitira maiz tradizio eta kosmoikuspide baten aztarna garbiak.

* * *

Gure gramatikaren tradizioa, ordea, ez da hain garbia. Idazle zaharren balioak, idazkera, joskera, e.a. gaurko zenbait gramatikan ere jaso gaberik dugu, zenbait puntu minimotan ez baldin bada. Gainerakoa, eta batez ere, itzultzaile batentzat tresna egokia izan zitekeena, kendurik dago. Eta honi buruz, bai, honi buruz pentsatu behar da, zeren hemen agertzen baitira beste era batzu, egokiagoak eta zabalagoak, gaurko zenbait joeren parean; zeintzu-

tan euskara baliozko bezala hizketarako erabilten dena hartzen den. Adibide gisara besterik ezean —eta norbait haserre balekit, barkazioa eskatzen diot aurrez, besterik ezean, ez nazan ni neu gero, eta konturaturik bazterturikako aberastasunak nahiko garrantzizkoak ditugula gaurko kinka honetan— jar ditzadan Duvoisin eta Erraimun Olabide, biok bi biblia itzultzaile zintzoak. Garbi ikusten denez, bi tradizio diferente eta dirudienez —eta ez literaturaren arazoengatik— etsai. Duvoisin, Lapurdiko tradizio zaharraren jarraitzailea da, lapurtarra izanik noski, baina garai hartako Gipuzkoa beheko eta Bizkaiko idazleak bezala.

Olabideren sena beste zerbaitengatik zabaldu da. Bibliak duen espresio zabalagoa joskera itxi batetan sartu du, bildu eta lotu, hartarako behar diren buruzorrozkeria guztiak eginda. Ez daukat honengatik Olabide alde batetara zertan utzi, ez haren balioa gutxietsi nahi ere: alderantziz, erizpide eta mundu jakin batek zer pentsatzen zuen, eta zergatik jotzen zuen bide horretatik ikusteko, nahiko eredu garbia dugu.

* * *

Benetan, herriak erabilten ez badu, ez dugu ezer egiten. Baina, herriak erabilten du hori, harentzat —eta hari ere ez diot ezer kenduko— non edo han kokaturik zegoen herri puntta bateko bereizikeria izatea esan zezakeen, beste norbaitentzat biltzea batetatik datorren zantzoa izan daitekeen bezala.

Areago, esan nahi nuke beste zerbait gramatika elkor horri buruz. Maiz gertatu zaigula gramatikaren laguntza oztopo izatea. Mila gauza dago galtzen ari dena, eta indarren ekonomiarengatik beragatik ere, galduko dena, beste hizkuntza guztietan galdu den bezala. Baina haren ordeztu beste zerbait jasotzen du hizkuntzak, edo asmatzen. Euskaraz ere ikus daiteke, dagoeneko, joera hori edo horren antzeko joera: aditzean, adibidez, potentziala urritzen ari zaigu, eta gaur berritua potentzialaren —errealaren nahiz supositiboaren— formak bilatzen ibiltea, denbora alferrik galtzea litzateke. Geratuko dira, noski, zenbait forma xingleago, arruntago, eta haiek gordeko eta geratuko dira. Gainerakoak, gramatikalarien eta hizkuntzalarien bitxikeria bezala geratuko dira, nire ustez.

Gauza bera esan daiteke aditz tinko edo sintetikoari buruz. Gaur oraindik nola edo hala erabilten dira; baina joera, perifrastikora doa; hau da, aditz nagusia eta laguntzailea erabiltera. Joera hauek ezin ditugu ahaztu, ez badugu nahi gu geu ere gramatika posible edo idea baten parean ibiltea.

* * *

Beste gauza bat aipatu nahi genuke ordea, guk oraindik garbi ez duguna, baina derrigor ikusi behar duguna, aztertu eta sakonduz posibilitate berriak izan ditzagun. Esaldi edo perpaus batetan nagusiak eta menpekoak lotzeko moduak. Euskararen atzekoz aurrerako joera —batez ere inguruko hizkun-

tzez gonbaraturik— nahiko garbia da, eta gaur oraindik gramatika batetan baino gehiagotan aurki daiteke, atsegin morbosoz kasikan idatzia eta deskribatua batez ere gonbaraketa deskribatzen denean. Baina, dudarik gabe —eta hemen— bai ez dugula bat ere aurrera botatzen duena. Erlazioa edo menpeko esaldia, esaldi nagusiaren zehaztapena da, beraren lekuan mugatu eta hesituz egiten dena. Hartaz, zehaztapenak errazago eman ahal dira geroago, gauzarik nagusia eman ondoren aurrez aitzakiak botatzen ibilteke. Dudarik gabe horrelako tradizio mota bat azaltzen da Iparraldeko idazleengan, batez ere zaharrengan, eta lotsarik gabe botatzen dizkigute ikaragarrizko esaldi luzeak, mila loturazko konjuntzioak erabilten dituztelarik, eta —zailena hori da— irakurleari beste munduko nekerik eskatu gabe. Tradizio hori gaitzetsia, moztua eta desterratua izan zen gure artetik “hitzegiten zen euskaran erabat garbi aurkitzen ez delako, beraz ez delako euskara egokia”. Eta nor ausartuko litzateke gaur esaten Axularrek ez duela euskaraz idazten eta ez dituela euskararen berezitasunak ezagutzen, etab. ...?

Kanpoko hizkuntzek kutsatua zegoela, esaten zuten, adibide gisa latina eta frantsesa eta gaztelera jarri. Agian, baina gu, nahiz joera hartaz ez baliatu, kutsatuago ez ote garen gara beldur. Areago, eta honetan itzultzaileen penak, negarrak, aieneka eta miseria gorriak kontatzen ditugu, tradizio hori —zaharra eta berri daitekeena esan nahi dut—, ahazteagatik sortzen zaizkigun arazoak, batzutan, irtenbiderik gabeak, ematen dute.

* * *

Nola itzul, adibidez: “Los trabajadores, que, habiendo cumplido diez años de servicio quieren jubilarse, quienes cobrarán un 3 % del salario real, más la antigüedad, por año o fracción”. Eta horrelako esaldi bat ez da aldrebesena. Denak horrelakoak balira..., agian itzultzaileok aberastuko ginatke... “Hamar zerbitzu urte egin dutelarik, jubilatua nahi duten langileek egiazko soldataren % 3a gehi antzinasuna kobratuko dute, lanurte edo beronen zatirengatik”. Baina ez digu horrek irtenbiderik eskaintzen. Seber Altubek esaten zuenez, esaldi bakoitza itzuli behar omen da: Hala: “Los trabajadores cobrarán... (I). Que quieren jubilarse (II); eta Habiendo cumplido diez años de servicio (III); “cobrarán un 3 % del salario real”... honela zatika, eta azkenik esaldi osoa taxutzen.

Baina, eta itzulpena batbatekoa edo simultaneo baldin bada? Nondik hasi? Hasierakoa ahantzen denean? Horretarako ere bideak ireki behar dira. Egina dugu froga batbateko itzulpenetan, eta itzultzeko penaz aurkitu izan dugu geure burua, edo penaren penaz eta eguna bukatu aurretik itzultzeko —geure etxera esan nahi dugu— puntuan egon izandu gara. Eta hemen ez dago errezetarik, botikarik ere ez dagoenez gero. Orduan bakoitzak ahal duen eta datorkion moduan itzultzen du. Baina hori ez da bidezkoa: euskara normal batetara itzuli behar da, ulertzeko moduan, agian gozatzeko eran.

* * *

Gerora bide hauek moztu egin dira, eta ondorioak berehala ikusi ditugu. Adibide gisa: erlatiboak ematen dituen posibilitateak garbi daude, besterik esaten ihardun gabe: “la amiga con quien vivo” euskaraz jartean, batek baino gehiagok errazera jo du, eta erraz itzuli du: “Nirekin bizi den adiskidea edo laguna”. Baina intentzioz —onez zein txarrez— beterik dagoen esaldia bada, zer egin? Jo dezagun: norberekoikeriaren aztarnak deskribatzen ari den idazle batek horrelako zerbait esaten duenean, eta esaldiaren eta sikologiaren pisua “ni” horretan ezarri nahi badu, itzulpena egokia izango litzateke. Baina ez alderantziz: behingoz behintzat sikologia hori urratzen duelako, eta beste bide batetara jo nahi duelako. Orduan, itzulpena eskasa ezezik, faltsua eta gezurrezkoa litzateke. Norbaitek, ordea, itzul dezake: “Adiskidea, harekin bizi baitnaiz”, edo horrelakoren bat. Pisua eta eta nahiko traketsa dela ikusteko, ez da begi argiegirik behar, agian belarri apur bat, eta ez gehiegi afinatua.

Orduan, tradizio zaharrak —nahiz garai batetako gramatikak horrelakorik onartu ez, purismoaren aitzakiz agian honela itzuliko luke: “adiskidea, norekin ni bizi naizen (baitnaiz)”, eta gauzak idazlearen zentzuan geratzen dira.

* * *

Baina, zenbait gramatika garbizaletan —eta oraindik aurkitu ahal da horrelakorik— ez dago horrelako itzulpenetarako lekurik: —gutxienez, bedein-kaziorik ez—. Adibidez: “sobre el tema, hay mucha bibliografía” euskaraz jarteko, batzuk ez dizute “gainean” jarteko baimenik emongo; “Agirre Asteasuok” liburuaren izenburuan bertan jarten duela, Axularrek eta Lizarraga Elkanokoak ere (1). Noski, bikoitz ulertu ahal dela eta bikoiztasunak alden du eta uxatu egin behar direla? Noski. Baina, norbaitek irakur baleza, gure Kiriñok “apaizari txapela kendu”-ren gainean idazten duena, dudarik gabe ez luke gauza hauetan muturrrik sartuko. Nire adiskide batek behin: “sobre la Esencia artikulu bat idatzi zuen”, ez irakurri zuelako, baizik haren gainean eseri zelako. Eta ez da aski “frontoiaren gainean bertso batzu jarten” esatea, frontoi gainera igon behar denik aditzera emateko.

Izan ere, gauza bat da benaz eta egiazki esaten dena, eta beste bat esan nahi dena. Eta esan nahi dena, testuinguruak ematen digu, batzutan aditzera eta bestetan tronpatzera. Eta horretarako, batzutan gramatika lagungarri gertatzen zaigu, eta maiz —zoritxarrez gehiegitan— eta zenbait gramatika arago, arerio edo etsai, ez baikaituzte gauzak argi eta zehatz esaten laguntzen, baizik buruxorroxkerietan aritzen.

(1) “Itzgaia Orden Sagratuaren Sacramentuaren gain”, *Lekuonatar Manuel Jaunaren omenezko Idazki-Bilduma II* (Vitoria, 1977), 23-27. “Itzgaia Esperanzaren ta Oracioaren gain” *Scriptorium Victoriense* 30 (1983), 65-89. “Itzgaia Doctrina Christioaren gain”, *Miscelánea J. Zunzunegi II* (Vitoria, 1975), 98-111.

Garai batetan, latin eta greko ikasteko arrazoiatariko bat hori zen: buruaren ariketa erara, ariketa ona baitzen. Eta gaurregun ere, gramatika zenbait nahiko buru-ariketa astun eta lehor dela, uste dugu. Tamalez diogu, sarri idazleak salbuespenei heldu behar izaten bait die, zerbait itxuraz eta taxuz esatekotan. Beraz, idazleak eta itzultzaileak gramatikaren gainean txilipurdika egin behar dute, eta gu geuk pozarren, ahalik eta erregela, arau, agindu, oharpen kontseilu, aginte, salbuespen gehienik urratuz, pentsamendua ez batzaigu askotan haren pintxoalanbrezko itxitura hesituetan barnetzen. Eta guk diogu: "Pentsamendua, ideia ala gogoa, jalgi hadi kanpora, jaldi hadi kulturara..."

* * *

HIZTEGIA DELA ETA

Galdea eginez —Imanol Berriatua zenduak honela erabilten zuen eta ez "galdera", beraren ustez azken hau "galde" egiteko era baitzen— hasi ahal dugu:

Zelan itzuli ahal da: "Los organismos, instituciones y entidades dependientes del sector..." eta gainerakoa? Itzultzaile madarikatuari horrelako gauza asko heltzen zaio egunaren buruan, eta nahiz buruari heldu eta eguna alferrik gastatu ez daki nondik heldu, zer egin eta azken batetan, nola itzuli: "Sektoreko erakunde, instituzio eta entitateak?". Sektorekoak diren... e.a.? Adibide gisa ez da txarra. Baina hori baino zailagoak ere tokatzen zaizkio itzultzaileari. Denok dugu gure lotsa, eta gure izen ona zaintzeko eta handitzeko eskubidea ere bai. Baina, horrelako gauzen eta esaldien aurrean, burua makurtu, eta lotsaz benetan, erdaratiko hitzetara jotzen dugu. Ez gara hiru hitz, beste edozein lekutan bakarka arruntki erabilten ditugunak, bata bestearen ondoren jarten ausartzeko. Iruditzen zaigu txarto egiten dugula, ez dugula itzultzen, baizik eta jolasean gabiltzala.

Gure ustetan, lotsa hau alde batetara utzi behar genuke. Erabat eta betiko. Beste hitzik eskuetan ez dugun artean, dauzkagunak hartu behar ditugu, eta haietaz baliatu, geure pentsamendua edo itzultzeko ematen digutena adierazteko. Mezua argi eta garbi esatea, ulertzeko moduan ematea da idazle baten edo itzultzaile baten zereginik nagusia.

* * *

Nahiz batzutan lotsa ere gure baitan izan, golkoa urratu eta hitz zerrenda osoa bota behar genuke, besterik gabe. Noski, bat baino gehiago etor lekiguke esanez, egiten duguna euskarazko itxuran erdara bera ematea dela.

Datorkigula eta eskaini diezaiogun berari itzul dezan, eta ikus sermoia botatzea benetan egoki eta argi itzultzea baino mila aldiz errazagoa dela.

Beraz, alde batetik hitz gutxi daukagu, areago gure erakundeak hedatzeke ditugularik, eta administralgoa, gaurregun ere, gehienbat erdaraz eramaten delarik, ia ez dugu eremu horretarako hiztegi finkatu eta zehatzik salbu geroxeago aipatuko ditugun zenbaitzu. Eta gure zeregina inork ulertzekotan, ohizko hitzetara jo beharko dugu, erdarazkoetara, alegia; baina inolako lotsa barik. Tradizioa egin egiten da, sortua ez dagoenean; eta horretarako eskubiderik ez digu inork lapurtuko, ezta ukatuko ere, zeren guztiau inoren ondarea ez baita.

Gure ustez, beste zerbaiti ekin eta jaramon egin behar genioke, hots: hizkuntza guztia, oro, aldatzen doalarik, eta gurea ere ez dela jadanik Leizarraga, Axular, Duvoisin, edo agian, Asteasuko Agirre batena. Adibidez, gaurregun ezta "ekusi" aditza erabilten "ikusi" baizik. Beraz ez daukagu zertan aditz hau birreskuratzen hasi beharrik. Arkaismokeriez kontu haundia, beste la...

Hemen, bestalde, salatzeke arazoa delarik, aditzera eman behar dugu, itzultzaileak burutzen duen lanetik argitaratzen denera, desberdintasun nabarmenak gertatzen direla, alegia, atzizkiak kendu, hitz baten ordeztatu beste bat ezarri... Honen lekuko zera dugu, Bilbo hirian ditugun hainbat eta hainbat publizitate hesi berrietan hurrengo hau irakurten ahal delarik: "Bilbao os saluda: Bilbo agurtzen zaituzte". Kasu honetan ergatiboak adierazgarria kendu egin diote, zeren hau ipini zuen enpresako arduradunak adierazi zigunez "-k" itsusi ematen zuela eta baztertu egin zutela; noski aipatu arduraduna arinaiztarra, "euskara ikasten ari naiz..." hutsa baitzen, eta honelakoez, zoritxarrez, josita dugu gure ingurua, hots, sasijakintsu eta euskarari kaltea baikizik sortzen ez diotenak.

Hizkuntzaren garapenak ere ba dauka zeresanik franko. Beste puntu bat daukagu ordea, guretzat askoz garrantzitsu eta beharrezkoagoa dena. Euskarak atzizki asko ditu, eta aurrizki gutxi. Hau bai dela garrantzizkoa garbitzea eta ikustea: hemendik sor litezkeen posibilitateak ez dira oraindik agortuak izan. Eta hemendik heldu behar genioke gure hizkuntzari. Adibidez, zer esan nahi du "-zale" atzizkiak? Zerbait gustatzen zaiola jendeari? "Arrantzale" daukagu garbi asko, denok ezagutzen duguna. Beste horrenbeste: kamioizale, edo idizale, edo ogizale... eta abar; ogizale eta okina ez baitira gauza bera: ogizale ogia gustatzen zaiona, eta okina ogia egin eta zabaltzen duena. Baina Azpeitian, adibidez, "ogizalea, esnezalea, taxizalea..." eta ez okina edo ogiduna, esnesaltzailea edo esneduna; honelako atzizki bat, ez dut uste, jakina, ofizio edo bizibide guztietara hedatu ahal denik, baina bai, nolabait, berriro aztertu eta sakondu beharko litzatekeena. Eta atzizki honekin gertatzen dena, beste askoz ere gertatzen da.

Aurrizki batzu ere ba dauzkagu, jakina, *goi*, *behe*-, e.a.... baina inondik ere ez gure inguruko erdarek adina. Eta itzultzailea, berriro diot, inguruko

erdaretan murgiltzen da itzultzeko. Haietatik jasotzen ditu hitzak, beraren euskal giroa ere, erdaraz beterik dagoenez gero.

Horien ondoan beste hitz zerrendak dauzkagu, azter beharrezkoak hauek ere; adibidez, "Bide" hitza, hainbat bide bideratzeko bidelagun ez bide dugun! Erizpide hau zuzenbidezko argibide ez bazaigu, galbidetik bideratzen dugu geure euskara bide guztia! Horri "artxisemema" deitzen omen zaio, agian "artxinahidena" delako. Eta bide guzti horietaz, beste zenbait hitz jasotzeke ez geratzeko, jaso, sartu, jo, ibili, e.a.: denetarako hartzen ditugun hitzak dira. Hau da, besterik gabe: gure hiztegia erabat aproximatihoa dela, hitz gutxi erabilten ditugulako, eta zehaztasuna galtzen zaigula, bidean, itzulpenak egiteko tresna izan ordez, martirio tresna zaigula, askotan, gure euskara. Eta ematen ditugun itzulpenek sarri ez dutela jatorrizko testuaren itxurarik, agian batzutan ulergaitzak gertatzen zaizkigula.

* * *

Une berean, eta bestalde, lau, bost, hamar hitz desberdin dauzkagu gauza bera esateko: "kutxiloa" eta "labana", "ganibeta" eta "ahiztoa"... gauza bera edo antzekoak, behintzat, adierazteko. Ez dira bat ere bereizten, ez bada zenbait tokitan kutxiloaren neurria bereizteko. Baita baditugu, "tximeleta", "pinpilinpauza", "bitxilota", "marisorgin",... etab. etab. Bi gauza, beraz, esan behar dira hemen: hots, alde batetik hiztegi teknikorik ez dugula apenas U. Z. E. I. delakoak, azken bolada honetan argitaratu dituenetik kanpo edo zenbait testuliburutan dagoenaz at, eta literatur eremuan oso urri gabilitza, eta itzulpenak burutzeko orduan makal sentitzen garela, ñabardura guztiak jaso eta euskaraz emoteko. Edozeinek frogatu ahal duen kezka dugu aipaturiko hau. Jakina, eta hemen esateko eta aitortzekoa dugu komenigarria, eta ezinbestean preminazkoa dugula oraintsu argitaratu barri den *sinonimoen hiztegia* (2) bai eskola mailarako, bai idazle eta itzultzaileentzat. Honelako hiztegiak inondiko aberastasuna ekarten digu hizkuntza mailan, argitasunak eskainiz, ideiak finkatzeko bideak errazturik, eta agian esannahiak zertuz. Zorionak "bostak bat" taldeari eta nire ongietorri sutsu eta hoberena liburuari.

ITZULPEN TEKNIKOA ETA ITZULPEN LITERARIOAZ ZERBAIT

Aurreko bi puntuen ondorio bezala har daiteke hemengo hau. Bi itzulpen mota hauek berezi behar direnik, ez du inork eztabaidatzen, ez eta ere, noski, bion artean nahiko bereizkuntza dagoenik, ez baita gauza bera udal agiri bat itzultzea eta poesia bat itzultzea, nahiz biak nahiko zail eta aldrebesak izan.

(2) *Sinonimoen hiztegia*, Adorez 1, Bostak bat, Bilbon 1983.

Itzulpen teknikoak hitzen balioketasuna eskatzen du, eta zehaztasun osoa. Adibidez, ezin hasi ahal dugu harako hura esaten: “mugikor lantegikoa” “haltzari denda” esateko; nahiz biok “muebles” itzuli. Hartarako, dudarik gabe, hitzen etimologiak zerbait lagundu ahal bagaitu ere, ez digu dena ematen, batez ere jatorrizko hizkuntzan etimologiak bere zentzua galdu badu. Adibide bera hartuz: “Bienes muebles y bienes inmuebles” deretxoko kontzeptua da; baina “Muebles de cocina”, etimologia beretik etorri arren, ez da gauza bera. Horregatik, batzutan etimologiak ere ez digu bat ere laguntzarik eskainiko. Hemen, noski, tradizioz bagenu, ez genukeen bat ere eragozpenik ez zailtasunik izango, deretxo kontuetan baliokideak errazago direlako eta alde guztietan deretxoko oinarriko kontzeptuak berdintsuak direlako. Baina gure artean, ezer gutxi dago tradizioan, eta liburu zaharretan aurkitzen dena bera ere arakatzeko aurkitzen dela, uste dut.

Hitzak sortzera ere jo daiteke esannahi horiek euskaraz emateko. Baina, beldur gara ez ote zaigun gerraurrean gertatu zitzaiguna berriro gertatuko: disimuloz baina burugogorkeriaz garbikeriara jotea, eta idatzitakoa ez irakurtea.

Dena den, eta batez ere itzulpen tekniko mailan, garrantzitsua dugu europear standard horretara jotea. Hau da: kultur maila berezirik gabe, alde guztietan erabilten den hizkuntza eta sintaxis horretara. Euskara bera normalizatu gabe daukagunez, ez da erraza benetan baina bai derrigorrezkoa. Hala ere, gauza bat esan behar da: itzulpen teknikoak ahalik eta garbiena, argiena, zehatzena izan behar duela, eta bestela ez duela ezertarako balio. Hau, benetan gauzak adierazteko, zehatz esateko eta mugatzeko da, eta ez nolabait aditzera emoteko, susmoak aberasteko. Hemen hizkuntza dibulgatiboa bage-nu, poztasun handia hartuko genuke, handik aurrerakoa beronen zehaztasu-nez egin baitaiteke; baina, zoritxarrez hori ere falta zaigu.

ITZULPEN LITERARIOAZ

Erabat desberdina da itzulpen literarioa. Hemen ere hutsune handiak nabarmentzen dira gure artean. Lan handia burutu da, bai joera batetakoa, bai bestekoa, hau da: aspaldidanik hasi ziren euskal idazleak lanak itzultzen, beren preminen arabera: eta maizenik, gure literatura sortzailea baino gehi-ago itzultzailea izan da. Hor ditugu euskararen lekuko edo klasikoak. Itzulpen literarioan joera desberdin eta diferenteak aurkitu ahal dira.

A) Berbaz berbako itzulpena

Hemen, ez mezuari bakarrik, baizik eta mezua emona izan den berbei edo hitzei ere garrantzi handia ematen zaie. Adibide erara hartu ahal dugu J. Leizarragarena: beronek eztu “Afaría” hitza itzulpenean sartzen, “Cena” berbak berarentzat eta beraren tradizioaren arabera, beste zentzu bat bait zuen.

Itzulpen gehienak horrela daude eginak. Idazleak esaten duenari ematen zaio inportantziarik handiena, eta ez nola esateari. Nola da, noski, literatura egiten duena; baina hala ere hitzei eman ohi zaie inportantzia, agian soinuei garrantzirik emateke.

Areago, esan behar da, ordea, itzulpen batek itzuliaren mamina jasoten ez badu, ez dela itzulpen ona. Hor dabilta, oraindik, normalizaturiko hizkuntza guztietara klasikoak —zein latinoak, zein grekoak— berriro, behin eta berriz itzultzen, aurreko itzulpenetan mamina guztia jasoten ez delakoetan. Horrek esan nahi du itzultzailearen jarrera bestelakoa izan dela, eta berak ez duela aurrekoan nahi zuen guztia aurkitu.

B) Itzulpena zentzua jarraikiz

Zentzuari jarraiki buruturiko itzulpenak, adibidez “se puso rojo como un tomate”. Gaztelaniaz gaurko mundu kulturalean gorriaren gonbaraketa gaia tomatea baldin bada, gaurreguneko euskarazkoa ezta kigu, baina atzokoa “gerezia” zen. Beraz, nola itzuliko genuke aipatu perpausa? Jatorrizko gonbaraketa emanik, gai hura jasoz, ala geure kultur mundukoa harturik? Zein da itzulpen jatorra:

gerezia bezain gorria?
ala
tomatea bezain gorria?

Hor dago, beraz, itzulpen literario batek daukan kokka.

Ortega y Gassetek zioenez, itzulpen orok ez duela soinu egokirik izan behar; alderantziz, jatorrizko hizkuntzakoa hark izan behar duela soinua eta erritmoa, eta hori ezin dela inola ere beste hizkuntzan emon. Adibidez: nola itzuliko litzateke gaztelaniazko “pura encendida rosa, émula de la llama”?

Hitzez hitz:

- Pura: garbia.
- Encendida: biztua.
- Rosa: arrosa.
- Emula: imitatzailea.
- Llama: garra.

Hitzak hor ditugu; baina orain erritmoa, soinua, gonbinaketa burutu behar da, gure hizkuntzan ere poesia izan dadin. Gonbaraketa aldatu? Soinua aldatu?... “sutan garbia arrosa...”.

ITZULPEN LITERARIOAREN ARAZOA

Honelako hainbat eta hainbat itzulpen burutu behar ditugula, gure hizkuntzaren ahalbideak bizkortu eta gaurkotu nahi baldin baditugu. Honela

hartara euskara bera behartzen eta bortxatzen dugu, bide eta ahalbide berriak urraturik.

Estilistika arazo guztiak be hemen barnetzen zaizkigu. Honela zera gertatu ahal da, jatorrizko hizkuntzak erritmo bat izan ahal duela, eta besteak beste bat. Eta erritmo hori emon ezin baldin balitzaio —ezin balekio— beste erritmo bat bilatu beharko da, ezin baita literatura lan edo obra bat, estilo barik itzuli.

Honela, aldaketa eta parekatze bat izanen litzateke, baina ez literatura. Literaturak bere legeak dauzka, eta behar-beharrez gorde beharko ditugu, geure hizkuntzan be literatura izan dadin, eta ez norbaiten lanari buruz emoten dugun informaketa zabala eta zehaztasun zenbaituz horniturik.

Berriz ere esan nahi dugu, itzultzaileak inolako konplexu barik saiatu eta lan egin behar lukeela. Beste zenbait eskualdetan itzultzaileak idazleek duten status bera dauka; baina gure artean ez, makina baten erara hartua delarik, beste inolako garrantzirik gabe. Itzultzaileei, idazleari zor zaion erara, begirunea eskaini behar zaie, zeren itzultzaileari bururik jaso eta atsedenic gabe lan egitea eskatzen baitzaio; bururik altxatzeke, arinka eta zehastasanak eskatzen zaizkiolarik etab. etab.

* * *

ERANSKINA

Eta orain, eranskin erara zenbait perpausen itzulpena, neronek buruturiko itzulpenetatik jasoak. Askotan kritikagarriak izango dira, baina nik neuk honela itzuli ditudanez, ez dut nahi izan inolako berriztapenik sartzerik.

Hona hemen, beraz, zenbait adibide:

ACTUACIONES DE PLANIFICACION DE LA ZONA: *Tokiarekiko plangintza ekintzak; edo herrialdean plangintza ekintzak.*

CERA TORCIDA, CERILLA QUE SE PONE EN LAS ARGIZAIOLAS: *Aldeka.* El día del entierro, la oveja y la cera torcida que llamamos aldacas se vuelven a casa del hermano cofrade difunto (libro de la Hermandad de los sacerdotes de la villa de Lesaca, 1677.urtea).

ANGULOS CORRESPONDIENTES: *Angelu aldeberekoak.*

ANGULO DE DESTALONADO DEL CONO (EN MACHO): *Sarreraren azpijan angelua.*

ANGULO DE LA HERRAMIENTA: *Aho angelua.*

ANGULO NULO: *Angelu ezdeusa.*

ANGULO OBTUSO: *Angelu kamutsa edo kamuts angelua.*

ANGULOS OPUESTOS POR EL VERTICE: *Erpinez aurkako angeluak.*

ANTICIPO HORAS ACCIDENTE: *Istripualdi orduetako aurredirua.*

ANTICIPO MENSUAL: *Hilabetearen aurredirua.*

ARBITRIO NO FISCAL SOBRE EDIFICACION DEFICIENTE: *Akas-dun eraikuntzaz erizpiderik eza.*

ARBITRIO SOBRE ORDENACION URBANISTICA: *Hirigintz-antolaketaz erizpidea.*

ARCHIBEBE COMUN: *Zaldun (ornt.).*

ARCHIBEBE CLARO: *Zaldun zurizka* (ornr.).

ARISTAS DE UN TRIEDRO: *Triedro baten ertzak.*

ASOCIACION DE ANTIGUOS ALUMNOS DEL INSTITUTO POLITECNICO NACIONAL "ESCUELA DE ARMERIA": *"Armagintza eskola" institutu politeknik nazionaleko ikasle ohien elkarte.*

ASOCIACION DE INGENIEROS TECNICOS INDUSTRIALES DE GUIPUZCOA: *Gipuzkoako teknik-industri ingeniarien elkarte.*

ASOCIACION DE TRANSPORTES DE VIZCAYA: *Bizkaiko garraio elkarte.*

ASOCIACION GUIPUZCOANA DE INVESTIGACION Y PREVENCIÓN DEL ABUSO DE DROGAS: *Gipuzkoako drogen ikerketa eta gehiegikeriaren errezelu elkarte.*

Atabaka: "Arrantzaleek tabakua gordetzeko txalupetan erabilten duten kaxatxua" (Ondarroa).

R.M. Azkuek zera dakar: "Urna de votación, cepillo de la iglesia, cónbona".

Atzeko: Itsas untzietako patroia edo lemazaina (Ondarroa).

R. M. Azkuek: cola de vestido, placenta.

Azi: ESPECIE DE CUCHILLO CON DOS MANGOS PARA REFINAR Y PULIR LAS TIRAS DE MATERIAL DE CASTAÑO PARA HACER CESTOS: (Iruñean Euskaltzaindiko D mailarako azterketa batetan Leitzako bati entzuna).

R. M. Azkue: "Habrá significado algún tiempo un instrumento cortante, como p. ej. tijeras? R. M. Azkue, Diccionario tomo 1., 115 orr. 4.º.

Baka: ARRANTZAN, ARRASTA-ERAN, BAKARRIK IBILTEN DEN UNTZIA (ONDARROA).

BARRIO: *Auzune* (Barrio en un sentido estricto y restringido. En algunos municipios vizcainos esta acepción, hasta ahora, de uso más bien rural, ha pasado a designar grupos o polígonos de viviendas).

Bataparrabi: Pilota jokoan. Gernika inguruan, ERABILTEN DEN HITZA. (Biren artean, Taldeka jokatzuz eliminatzen, galtzen nori tokatzen zaion zaila denean, biek jokatzuz dute, baina baldintza batez, sakea ateratzen duenak tantua egiten baldin badie, aipatu biak kanpora irteten dira).

BIENES DE AGRUPACIONES Y MANCOMUNIDADES MUNICIPALES: *Udalen mankomunitate (amankomunazgo) eta elkarteen ondasunak.*

BIENES TRONCALES: *Jaiotetxeko ondasunak / etxe basoak.*

BISETRIZ DE UN ANGULO: *Angelu baten erdikaria.*

BRAZALETE DE ARQUERO: *Arkulari besauztaia.*

BURILES DIEDROS LADEADOS: *Zulakaitz diedro okertuak.*

BURIL SOBRE TRUNCADURA RETOCADA: *Ikutudun mozturazko zulakaitza.*

C

CENTRO DE TRANSMISION CULTURAL: *Kultur emanaldi gunea.*

CIRCUNFERENCIA TANGENTE INTERIORMENTE: *zirkunferentzia barrenez aurkitzailea.*

COLEGIO DE GESTORES ADMINISTRATIVOS DEL PAIS VASCO: *Euskal Herriko Administral Artekarien Kolejioa.*

COLEGIO OFICIAL DE PERITOS E INGENIEROS TECNICOS INDUSTRIALES DE GUIPUZCOA: *Gipuzkoako Peritu eta teknik-industri ingeniarien Kolejio ofiziala.*

COLEGIO OFICIAL DE AYUDANTES TECNICOS SANITARIOS Y DIPLOMADOS EN ENFERMERIA DE VIZCAYA: *Bizkaiko teknik-sanital laguntzaile eta erizaintzan diplomatuena kolejio ofiziala.*

COLGANTES EN DIENTES DE CIERVO: *Orein-hortzezko zintzilika-riook.*

COMISION DE SERVICIOS Y EMPRESAS MUNICIPALES: *Udal zerbitzu eta enpresen batzordea.*

COMPRAS DIARIAS GRATIS A GOLPE DE TALON: *eguneroko erosketak dohainik, taloiaren trukez edo truketan.*

COMPRESOR DECORADO CON FIGURAS DE ZORRO: *Azeri-irudiz apainduriko konprimagailua.*

CAPITAN DE LA MARINA MERCANTE: *Zama ontziko kapitaina.*

CONSEJO DE ADMINISTRACION SERVICIOS MUNICIPALES: *Udalduriko administrari kontseilu zerbitzuak.*

CONTRIBUCION SOBRE LA UTILIDAD DE LA RIQUEZA MOBILIARIA: *ostilamendu aberastasunaren erabilteaz zerga.*

CH

CHARNELA EN EL VASTAGO: *ateorpo urtumean.*

CHARNELA SOPORTE: *Ateorpo euskarria.*

D

Dar-dar: ukapen "NEGACION". R. M. R. M. Azkuek eztu ukapen bezala erakusten, "temblor" baizik.

DELIMITACION DEL AREA DE PLANEAMIENTO: *planeamendu sailaren mugaketa.*

DENTON: *hortz erroset (arrain mota).*

DERECHO DE RENUNCIA A LA ESTIMACION OBJETIVA SINGULAR: *estimatu objektibo bereziari uko eskubidea.*

DESCOMPOSICION DE UN NUMERO EN SUS FACTORES PRIMOS:

zenbaki baten bidergaiketa lehena.

DIAS IMPARES: *egun bakoitiak*. Batoi eta bakoiti: pares y nones.

DISPOSICION LEGISLATIVA DE CARACTER HORIZONTAL:

zeharketa izaerazko lege disposapena.

DIVISIBILIDAD ENTRE NÚMEROS NATURALES: *zenbaki arrunten arteko zatigarritasuna.*

DEFICIENTES SENSORIALES: *Somamen urridunak.*

DESPRENDIMIENTO DE ROCAS: *harkaitzen erioa; harkaitz jauzia.*

E

EJE ROSCADO DEL TORNILLO DE BANCO: *tornuzila.*

EKARKIO ekarr(i) + -kio: "bertsotako gogoa berezkoa ekarkio: resulta que traía una afición innata a los versos (Leitza, Nafarroan jaso).

ELEVAR A POTENCIA: *Berre(tu); berretzaille batetara jaso.*

ELEMENTO NEUTRO RESPECTO DE UNA OPERACION ARITMETICA. *eragiketa arimetiko batekiko elementu neutroa.*

Erru: eutsigarri: TENTACULO. R. M. Azkuek: "Culpa, brío, valor, dificultad, consecuencia, abundancia; flema, gargajo; lodazal; piel que se renueva en la convalecencia".

EVACUACION DE AGUAS RESIDUALES: *kondar edo ur hondarren jariapena.*

Enparu: gogait eragin. Enparata Laga. Enpara eduki (Ondarroa) fastidio, hastio...

Ezpeta: Haga luzea, arrantzarako erabilia: "Vara larga que se coloca en los lados de la embarcación para sostener a los aparejos" (Bermeo-Ondarroa).

ENSALADA DE FRUTAS DE MAR: *itsas etinezko entsalada.*

F

FORMA DECIMAL DE UN NUMERO RACIONAL: *zenbaki arrazional baten era hamartarra.*

FRAGMENTO DE UN HACHA PULIMENTADA: *Aizkora leundu baten zatia.*

FUSION DE TERMINOS MUNICIPALES: *Udal dermioen fusioa. Udal mugen elkartze edo bateratzea.*

FINCA PARTICULAR: *etxalde jabeduna.*

G

Galarreta: TABLILLAS QUE SE PONEN DEBAJO DEL CALZADO PARA NO HUNDIRSE EN LA NIEVE (Gorbeia).

GRIETA DE TEMPLE: urebagi "Ocurre generalmente a las piezas sometidas varias veces al proceso de temple; y ello sucede cuando la pieza se enfría bruscamente, debido a los efectos de contracción. No tiene nombre propio en castellano" (J. San Martin).

GUBIA DE BRONCE ENMANGADA EN CUERNO: *burdinorizko gubia adarrezko kirtenez.*

H

HACHUELA DE RETOQUE BIFACIAL: *aldebitako ikutudun aizkora-txoa.*

HACHA DE TALON CON ANILLAS: *eraztundun aizkora orpoduna.*

HAZ DE RECTAS CONCURRENTES: *zuzen topakor sorta.*

HERMANDAD DEL MAESTRAZGO EN EL SENORIO DE VIZCAYA: *Bizkai jaurgoan anaiarteko maestreria edo maestreri anaiartea.*

HORAS IMPORTE DE RENDIMIENTO DE TRABAJO PERSONAL (R.T.P.): *norberaren lan ekoizpenaren zenbatekoa (N. L. E.).*

INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERMINOS: *hitzetako balio gehikuntza.*

INFRAESTRUCTURAS DE COMUNICACIONES A NIVEL ZONAL: *herrialde mailako komunikapenen azpiegiturak.*

J

JURISDICCION CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO: *auzitan harturiko administral-jurisdikzioa.*

JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA: *aurre mailako auzitegia.*

K

Kala: arrantzu tokia: CALADERO, CALA.

Arrantzaleen artean, kalek edo arrain tokiek, askori eman izan diote nortasuna. Hala nola: andra kala. Arrain kala. Besigu kala. Kostarren kala. Justo kala (Gaminiz edo Plentzian). Mutriku kala. Tribis kala (Izaro).

Ketu: joanketu, eginketu, emanketu... Elemento de conjugación que se aglutina inmediatamente después del infinitivo e indica la idea de soler, acostumbrar: *Joanketu gara; eginketu dute.*

L

LAMINILLA DE DORSO ABATIDO: *ijelkitxo hegal-zanpatua.*

LA MULTIPLICACION ES DISTRIBUTIVA RESPECTO A LA ADICION: *Biderkaketa banakorra da batuketarekiko.*

LIQUIDACION DE INGRESOS DE LA GESTION DE ABONADOS: *abonatuen gestio sartzeen kitapena.*

LIQUIDACION DE LA PARTICIPACION DEL CONSORCIO EN EL RENDIMIENTO DE LA TARIFA GENERAL DE LA COMARCA: *Eskualdeko tarifa nagusiaren errendimenduan, partzuergoaren partehar-tze kitapena.*

LL

LLUVIA QUE SE DESPRENDE DE LA NIEBLA: *langar* (Naf. Garaia).
(Iruñeko azterketa batetatik jaso) eta Ajuria-Muxikan (Bizkaia): *lanbar*.

M

MEDIOS Y EXTREMOS DE UNA PROPORCION: *Proporzio baten erdikariak eta buruak*.

MINIMA DISTANCIA DE DOS RECTAS QUE SE CRUZAN: *Gurutza-tzen diren bi zuzenen arteko distantziarik txikiena edo laburrena*.

MUTUALIDAD BENEFICA DE PERITOS E INGENIEROS TECNICOS INDUSTRIALES: *Peritu eta teknik-industri ingeniariaren benefizentzi elkarkidegoa*.

N

NO PASAR CON MARCAPASOS: *Ez pasa bihotz-eragingailua dutenak (bihotz-eragingailudunak)*

NORMAS SUBSIDIARIAS: *arau sorosgarriak edo lagungarriak*.

NUDISMO; PLAYA DE NUDISTAS: *Biluztasuna; biluzizaleen hondartza*.

NUMERACION DE CADA SUBPOLIGONO: *azpipoligono bakoitzaren zerrenda*.

NUMERO SIMETRICO DE OTRO RESPECTO DE LA SUMA: *batuketarekiko zenbaki baten simetrikoa*.

O

ORIGEN Y EXTREMO DE UN SEGMENTO: *zuzenki baten abiadura eta helburua; segmentu baten abiadura eta helburua*.

Ozkil (hozkil): hotzakil, bai eta nahastetsu, setatsu edo antzeko ere.

R. M. Azkue: fresco, enclenque, fiático, persona apocada; pero también le llaman así al individuo ensimismado, terco (Ondarroa).

P

PARCELAS SOBREPUESTAS DE VIA PUBLICA: *bide publikoko edo herribideko sail edo partzela enparatuak*.

PARTICIPACIONES EN LA CONTRIBUCION TERRITORIAL SOBRE LA RIQUEZA RUSTICA Y PECUARIA: *basa eta abere aberastasunaz lurralde zergan partzuergoak edo partaidetzak*.

PLAQUETA DECORADA CON UNA FIGURA DE CABALLO: *zalditridiz apaindutako plaketa*.

PLIEGO DE CARGO POR RECIBOS DE LA REFERENCIA, QUE SE FORMULA AL RECAUDADOR MENCIONADO: *erreferentzia errezi buengatik aipaturiko biltzaileari formulatzen zaion zama-plegua*.

- PUNTA DE LANZA ACANALADA: *erretendun lanza muturra.*
 PUNTA DE PEDUNCULO CENTRAL Y ALETAS LATERALES: *Erdiko txortendun punta saiheits-hegats bikoa.*
 PUNTA Y RAEDERA DE HUESO: *hezurrezko punta eta karraskailua.*
 PUNTO DE INTERSECCION DE DOS RECTAS: *bi zuzenen ebakipuntua.*
 PUNZON SOBRE ESQUIRLA DE HUESO: *hezur zatiz eginiko zikaia.*
 PLAN ESPECIAL DE REFORMA INTERIOR DEL NUCLEO URBANO DE MATIENA: *Matienako hiriguneko barne erreformaren egitamu berezia.*
 PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DEL MUNICIPIO DE ABADIANO: ZONIFICACION Y VIABILIDAD: *Abadiñoko udalerriaren hirigintzako egitamu nagusi alderdiketa eta bide eraketa.*
 PROYECCION DE GRAVILLA: *hartxintxor jaurtiketa.*

R

- RASPADOR EN CRISTAL DE ROCA: *harlorezko marraizkora.*
 RÉCARGO EN EL ARBITRIO PROVINCIAL SOBRE EL PRODUCTO NETO: *ekoizpen garbiaz errenergua ariel probintzian.*
 RECTA INTERSECCION DE DOS PLANOS: *Bi planoren arteko ebakidura zuzena.*
 RECTAS PARALELAS CORTADAS POR UNA SECANTE: *Ebakigailu batez moztutako zuzen paraleloak.*
 REGIMEN DE TRIBUTACION DE PROFESIONALES Y ARTISTAS: *profesionari eta artisten edo artelarien zergapen arauak.*
 RELACION DE RAMALES PRINCIPALES DE SANEAMIENTO CON EL PROYECTO DE INFRAESTRUCTURA SANITARIA DEL DURANGUESADO: *Durangaldeko osasunbide sare sail behinenen arteko zerrenda sanital azpiegitura proiektuaz.*
 RELACION VALORADA DE LAS OBRAS DE EJECUTADOS CON ARREGLO A LOS PRECIOS DEL PRESUPUESTO Y PROYECTO: *Baloraturiko lanen zerrenda: aintzin-kontua eta proiektuaren arabera burutuak.*

S

- SEÑALES DE LOS AGENTES DE CIRCULACION: *bidezainen seinaleak.*
 SITUACION DE PASO A NIVEL SIN BARRERAS: *langa gabeko (trenbide) pasagunea.*
 SUPERFICIES VINCULADAS A LA EDIFICACION: *eraikuntzaz loturiko gainaldeak edo zoluak.*
 SOLUCIONES INFORMATICAS PARA LA ADMINISTRACION LOCAL: *tokian tokiko administralgorako irtenbide informatikoak.*

T

TABLA DE RETENCIONES FAMILIAS NUMEROSAS DE HONOR: *ohorezko familia haundien atxekidura taula.*

TESORILLO DE PEQUEÑOS BRONCES DEL BAJO IMPERIO ROMANO: *Behe-inperio erromatarreko burdinori txikiz osoturiko altxortxo.*

TRIBUNAL ECONOMICO ADMINISTRATIVO PROVINCIAL: *ekonomi administral epaimahai edo auzitegi probintziala.*

U

UNIDAD DE INFORMACION Y RELACIONES PUBLICAS: *argibide edo informazio eta harreman publikoetako unitatea.*

UNIDAD TECNICA DE ASISTENCIA SOCIAL: *gizarte laguntzako unitate teknikoa.*

USOS DE SUELO URBANIZADO: *hirituriko behe edo zolu erabilerak.*

V

VALORACION PAISAJISTICA DEL ENTORNO URBANO: *hiri inguruko edo aldeko paisaiaren balorapena.*

VASO CON DECORACION DE IMPRESIONES DIGITALES: *hatz markez apainduriko ontzia.*

VOCALES DE LAS JUNTAS VECINALES: *auza-junten edo batzarreen bokalak.*

Y

YACIMIENTO EN CUEVA: *haitzuloko aztarnategia.*

Z

ZONA DE AGLOMERACION: *Samalda leku edo aldea.*

ZONAS EXCLUIDAS DEL TRAFICO: *trafikorik gabeko esparruak.*

* * *